

Año LI urtea

N.º 93. zk.

2019



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

Ondare ez-materiala iparraldeko mugan: nabar Pirinioen kasua

Aritz LARRAIA MEDINA

Ondare ez-materiala iparraldeko mugan: nabar Pirinioen kasua

Patrimonio inmaterial en la frontera norte: el caso del Pirineo navarro

Untangible cultural heritage on the Northern frontier: Navarrese Pyrenees' case

Aritz LARRAIA MEDINA
Universidad Pública de Navarra
aritzeari@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/ceen.93.6>

Jasotze data: 2019/06/10. Behin-behineko onartze data: 2019/ 08/09. Behin betiko onartze data: 2019/12/16.

LABURPENA

xx. mendeko azken aldian, euskarak gainbehera sakon batean sartu zen Nafarroako ipar-ekialdean eta inon baino nabariagoa izan zen Erronkariko Ibaxan. 1980-1990 hamarkadetan erronkariko *uskararen* azken hiztunak hiltzen ziren bitartean, bi komunitate hauen arteko harremana gainbeheran sartu zen. Landa-lan honetan, mugaren bi aldeetako biztanleei egindako elkarrizketei esker, egungo egoera zein den aztertuko da. Komunitate hauek gordetako ondare materiala eta ez-materiala aintzat hartuko dira. Honekin batera, etorkizunerako erronkak aztertu egingo ditugu herri hauek betidanik izan duten lotura galdu ez dadin eta mugaz gaindiko harremanak sustatzeko proiektu desberdinak planteatuz.

Gako hitzak: euskara; muga; harremanak; ondare ez-materiala; bizimodu amankomunak.

RESUMEN

A finales del siglo XX el *uskara* experimentó un serio declive que concluyó con la desaparición de sus últimos hablantes en las décadas ochenta y noventa del siglo pasado. Mientras estas personas conocedoras de la lengua vernácula del lugar morían, las relaciones con el otro lado de la muga comenzaron a debilitarse. En este trabajo de campo, mediante una metodología cualitativa basada en las entrevistas realizadas a personas de ambos lados de la muga, se analiza cuál es el estado actual de dichas relaciones. El patrimonio inmaterial y material guardado por estas personas será tenido en cuenta. Asimismo, se analizarán los retos y oportunidades de estas comunidades para el futuro de sus relaciones.

Palabras clave: euskera; frontera; relaciones; patrimonio inmaterial; estilo de vida común.

ABSTRACT

At the end of the 20th century, «uskara» experienced a serious decline which ended with the disappearance of the last Basque speakers in the 1980-90's. While these people, the last true speakers of the vernacular language, died, relations with the other side of the border began to weaken. In this paper through a qualitative methodology based on interviews done with people from both sides of the border, we analyze what the current state of the mentioned relations is like. In addition, opportunities and challenges faced by these communities will be analyzed to assess their possible future relations. The material and intangible cultural heritage maintained by these persons will be taken into account.

Keywords: Basque language; frontier; relations; intangible cultural heritage; lifestyle.

1. SARRERA. 2. IKERLANA. 3. EZTABAIDA ETA EMAITZAK. 4. ONDORIOAK. 5. PERSPEKTIBA. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Lehenik eta behin, hurrengo lanaren esplorazio izaera nabarmendu nahi genuke. Nafarroako ipar-ekialdeko mugan, euskal hizkuntzak zuberotarren eta nafarren arteko harremanetan jokaturako papera aztertzen duen hurbilketa baten aurrean aurkitzen gara. Lan honetan zehar, hizkuntza horrek izandako gainbehera non eta noiz eman zen eta horrek suposatu zituen aldaketak aztertuko dira. Honekin batera, artzain eta abeltzainen bizimoduak ondare ez-material zehatz batzuk gordetzeko izan duen garrantzia ikertuko dugu.

Aztertutako egoera ahal bezain argi irudikatzeko, bi komunitateen arteko gaur egungo harremanaren osasunari buruzko azterketa egingo da. Horretarako, esparru honetan Sandra Ott-ek (1981) duela hiru hamarkada *The Circle of Mountains* liburuan azaldutako ideietatik abiatuko gara, gaur egun egoera berdin mantentzen den ala aldaketak izan diren aztertzeko, beti ere, eremu geografiko honetako biztanleak ikerketaren erdian jarrita eta pertsona hauei merezitako protagonismoa eskainiz. Tesuingurua ere kontuan hartuko dugu, mugaren bi aldeetako egoera demografikoa eta ekonomikoa zein den ahaztu gabe.

Gure hipotesiaren arabera, Nafarroako ipar ekialdeko mugan, euskal hizkuntza bortuaren bi isurialde desberdinetako komunitateak batzeko eta harremanak sendotzeko elementu garrantzitsuenetariko bat izan zen/da eta nafar aldean hizkuntza galtzarekin batera, muga territoriala, harresi soziolinguistiko bilakatu da. Zorionez, lehen sektoreari atxikitutako langileen bizimoduari esker, ondare ez-materiala gorde eta mantentzea lortu da.

Lanaren helburua beraz, ikerketaren bitartez, bi komunitateen harremanak zeintzuk izan ziren aztertzea eta gaur egungo harremanak nolakoak diren ulertzea da. Helburu zehatzei dagokionez, egun mantentzen diren harreman horien egoeraren ebaluazioa burutuko da, harreman horiek sustatzeko eta sendotzeko dauden aukerak aztertzen ditugun bitartean.

Aipatutako guztia aurrera eramateko, metodologia kualitatiboan oinarritutako ikerketa teknika ezberdinak erabili ditugu, hala nola, sakonki jorratutako elkarrizketak eta dokumentazio grafikoa. Bildutako informazioaren kalitatea premiazkoa izan da guretzat eta horretarako, bizimodu horretako partaide zuzenak diren pertsonen oroitzenak eta kontakizunak aintzat hartuak izan dira. Hau honela, lortutako informazio gehiena, ahoz-ahokoa izan da. *Elur bola* deituriko teknika baliatuz, aukeratutako artzain batek, beste aldeko artzainekin jarri gaitu kontaktuan eta hauek, modu berean, hurrengo herriko elkarrizketatuarekin. Ezin dugu ahaztu eskualde hau demografia arazo larria pairatzen duela eta horregatik, zaila izaten da lagin zerrenda luze bat osatzea. Aipatzekoa da, erlazioak, hizkuntza, jarduera ekonomikoak, harreman kulturalak, ohiturak eta herri izaera, kategoria aurre-analitikotzat hartu izan ditugula. Guzti honi esker, lagin ezberdinak osatu eta elkartu ditugu. Lau herri ezberdin aukeratu ditugu. Bi iparraldean (Santa Grazi eta Lorraine) eta beste bi hegoaldean (Izaba eta Uztarroze). Oro har, oreka xume bat mantentzen saiatu garen arren, elkarrizketatutako zazpi pertsonetatik, bost iparraldean bizi dira eta beste biak berriz, hegoaldean. Honek erakusten digu lehen sektoreari lotutako ogibideak iparraldean hegoaldean baino hobe mantendu direla. Errealitate hau bortuko bi aldeetan aurki daitezkeen paisaietan ere antzeman daiteke geroago azalduko dugun bezala.

Azpitarratzekoa da, elkarrizketetarako erabili izan ditugun materialak ohar bloka eta argazki kamera izan direla soilik. Grabagailua momentu oro soinean izan dugun arren, elkarrizketatutako pertsonak ez dira eroso sentitzen tramankulu horren aurrean mintzatzen eta honen ondorioz, ideia bertan behera utzi behar izan dugu. Egia esan, elkarrizketa aurrera egin ahala, jarrera irekiago bat mantendu dute guztiek baina, ezin da ahaztu, eskualde honetako biztanleak haien izaera noblea bezain barnerakoiatatik ezagunak izan direla. Bestalde, artzainek neguan egin ohi dituzten mugimenduak saihesteko helburuarekin, ondorengo lana 2018ko udan burutu dugu.

2. IKERLANA

Ondorengo lana, Nafarroako ipar-ekialdeko mugan izandako behaketa parte-har-tzaile batetik jaio dela aitortu beharra dago. Behaketa hau, mugaz gaindiko komunitateak iraganean izandako eta gaur egun dituzten harremanak ikertzera bultzatu gaitu eta horretarako, Pirinioen iparraldean zein hegoaldean bizi diren biztanleen testigantzak kontuan hartuak izan dira.

Euskal hizkuntza, erlazio eta harreman hauek aurrera eramateko eta mantentzeko elementu garrantzitsua izan delakoan gaude. Bortuaren iparraldean zein hegoaldean kokatutako komunitate hauek bizimodu antzekoa izan dute, bai orografiaren eraginez,

bai ohiturengatik eta baita hizkuntzagatik ere. Estrabonek azaldu zuenaren arabera, «Baskoinen lurralde eta Pirinioetaraino, guztiak bizimolde berekoak baitira» (Estrabon, k.o 20. urtea).

Honekin lotuta, Pablo Ordunak aurrera eramandako ikerketetan ere agertzen zaigu kontzeptu hau eta frogatuta uzten digu gutxienez, guk ikertu nahi dugun eremuan, hau da, mendebaldeko Pirinioetan, horrelako egiturak mantendu izan direla:

In the Western Pyrenean region there are cores of population in which their settlers, throughout history, have devoted themselves in an almost exclusive way to the management of their natural resources. At the same time they have given place to create territorial exchange networks with the purpose of supplying the needs of other nearby regions of the geographical surroundings (Orduna, 2016, p. 17).

Bizimodu hori ere, herritar hauen jarduera amankomunekin lotuta dagoelakoan gaudete eta, hizkuntzak gizarte horien ikusmoldea eta errealitatearen ulermena baldintzatzen du, Humboldték azaldu bezala (1801). Ideia hau kontutan hartuta, garbiago ikus daiteke herri hauen arteko elkarlana nolakoa eta zertan oinarritua izan den.

Azken finean, Humboldték bere buruari galdetzen dio zerk egiten duen gizarte baten gizarte baten moduan eratzea. Politika, herri kultura, fisionomia edo orografiaren gainera kokatzen du hizkuntza. Hizkuntza da giza-talde horren nortasuna eratzeko elementu garrantzitsua. Horregatik, hizkuntza galduz gero, nazioa ere galduko zela aurreratu zuen.

Honekin lotuta, Eugenia Fragak duela gutxi azaldu duen moduan, hizkuntza ez da instrumentu edo objektu bat soilik, «giza bizitzaren zati integrala baizik» (Fraga, 2015, p. 167).

Idea hauek guztiak ez dira berriak baina kontuan hartu behar dira errealitatearen azterketa kritiko eta sakon bat aurrera eraman nahi badugu. Horrenbestez, ezin dugu Maria Luisa Rodríguez Sala-Gómezgilek (1983, p. 153) esandakoa ahaztu, haren hitzetan: «En cualesquiera de las formas en que se exprese el lenguaje, su función –como ya ha sido establecida en especial por los sociolingüistas– es eminentemente social y por lo tanto íntimamente ligada a lo cultural».

Idea hau jarraituz, aurrerago deskribatutako elkarrizketetan ikusiko dugun moduan, nafar isurialdean euskararen gainbeherak zer nolako ondorioak ekarri zituen ikusteko aukera izango dugu.

Dena den, Zuberoan, euskararen egoera larria da ere. Gaur egun arte biziraun baldin badu, hango biztanleen erresistentziarengatik da, administrazioak oztupoak baino ez baitie jartzen. Horrela azaltzen du Ihintza Palacín Mariscalek:

The Fifth Republic of France signed the Language Charter in May 1999. However, as it is well known, it has not yet ratified the Charter. The weight of the 1789 Revolution

and creation of the French Nation already supposes an obstacle to the recognition of regional or minority languages' rights. Indeed, the Fifth Republic is embedded in the revolutionary heritage of individualism and rejection of communitarianism, not allowing the slightest reference to particularism (Palacín, 2017, p. 134).

Hau guztia kontuan harturik, mugaren bi aldeak aztertuko ditugu eta haien harremanen garapena nolakoa izan den ulertzen saiatuko gara, haien jarduerak eta ohiturei behatzaile gisa gerturatzen.

3. EZTABAIDA ETA EMAITZAK

Behaketa asmo batek bultzatuta, lehendabizi, Larraineko eta Santa Graziko inguruak eta bazterrak aztertu ditugu. Berehala, bortuko bi isurialdeek dituzten ezaugarrien desberdintasunaz jabetu gara. Alde batetik, iparraldean, larrez beteriko paisaiak eta auzoak dira nagusi. Hegoaldean bestalde, mendi malkartsuak eta basoz jositako paisaiak agertzen zaizkigu. Nahiz eta ordokietan larre gehiago aurkitu, iparraldean mendiek larre erabilgarri gehiago mantentzen dituztela bistakoa da.

Ondorengo taulan, elkarrizketatutako pertsona guztien profila antolatu dugu, informazioa eskuragarri izateko.

Taula 1.

Subjektua	Herria	Sexua	Adina	Ogibidea
1. subjektua	Izaba	Gizona	65	Artzaina
2. subjektua	Uztarroze	Gizona	50	Abeltzaina
3. subjektua	Larraine	Gizona	45	Gaztagilea
4. subjektua	Larraine	Emakumea	60	Udal ordezkaria
5. subjektua	Larraine	Gizona	70	Erretiratua (Artzaina)
6. subjektua	Larraine	Gizona	30	Artzaina
7. subjektua	Santa Grazi	Emakumea	60	Tabernaria

Elkarrizketatutako lehen subjektuari egin diogun lehen galdera da hori. Paisaiaren desberdintasuna, alegia. Artaldea eraman berri duen 65 urtetik gorako gizona. Artzain du bere ogibidea. Uztarrozekoa da. Bere esanetan, azken 50 urteetan suertatu da hegoaldeko paisaiaren eraldaketa. Haurra zenean, ez zen inolaz ere hainbeste pinudi ikusten. Herrien inguruko bazterrak abereen bazkalekuak ziren eta basoa herrietatik urrunago aurkitzen zen. Abeltzaintzaren gainbeherarekin azaldutako ondorioetariko bat da, hain zuzen ere. Kontatzen duenez, pasaden mendeko 50eko hamarkadan hasi zen aldaketa. Lehenik eta behin, abeltzain askok bizimodua aldatu zuten eta etxe zein hazienda ezberdinetako larreetan pinuak landatzeari ekin zioten. Egurra garai hartako urrea zela dio. Badira ere joera naturalez zuhaitzez josi ziren beste eremu batzuk eta artzainen ardiei esker izango ez balitz, garai bateko larreak desagertuak egongo

lirateke. Mugaz gaindiko harremani buruz galdetuta, gogoratzen du, garai batean harremanak askoz ere ugaria-goak zirela baina, xumeki, gaur egun ere mantentzen direla dio. Berak baditu beste aldeko lagunak eta hauek ongi ezagutzen dituen herrikide baten kontaktua luzatzen digu. Lehen aipatu dugun moduan, *elur bola* deituriko teknikari esker elkartu ditugu subjektuak. Gaur egun, oso jende gutxi aritzen da artzaintzan eta abeltzaintzan, bai Uztarrozen eta baita Izaban ere. Gure asmoa bortuko bi aldeetan bizimodu amankomunak dituzten pertsonen bizipenak eta inpresioak biltzea denez, animaliekin lanean diharduten pertsoneri eman diegu lehentasuna, hauek baitira komunitate hauen ondare ez-materialaren benetako zaindaria. Ez da batere erraza haiekin kontaktuan jartzea, kilometro askotako bazkaleku ezberdinetatik mugitzen baitira eta askotan, haien senideek ere ez dakite zehatz-mehatz non dabilzan. Hau da lehen elkarrizketa Lazako mendatean egin izan beharraren arrazoia. Egia esan, pertsona honen laguntza izan gabe, zaila litzateke bigarren subjektuarekin topo egitea.

Ondoren, Uztarrozera lekualdatzen gara 2. subjektua elkarrizketatzeko asmoz. Pertsona hau 50 urte ingurukoa, Uztarrozeko biztanlea, lehen sektoreko langilea (abeltzaina eta artzaina), hiru hizkuntza hitz egiten ditu. Euskara, frantsesa eta gaztelera. Hark azaltzen digunez, betidanik ezagutu izan ditu bortuaren beste aldeko herritarrekin izandako harreman historikoak. 15 urte zituen iparraldera joan zen lehen aldian. Gero, frantsesa ikasi zuen haiekin komunikatzeko asmoz baina, bere lehen kontaktua egiterako orduan, Larrainekoak ez zion tutik ere ulertu. Barrez kontatzen digu frantsesez oso gaizki



1. irudia. Behorrak eta txahalak Larraineko bortuan.



2. irudia. Lazako gaina. Atzean, Ezkaurre mendia.

azaltzen zela pentsatu zuela egun hartan. Geroago ohartu zen artzainak Zuberoako euskara bakarrik mintzatzen zuela. Beste aldeko kideekin komunikazioa eta harremana izateari sekulako garrantzia ematen dio gizon honek. Ogibide eta bizimodu berbera dutenez, askotan laguntzen dute elkarri. Azaltzen duen moduan, mendian animaliekin lan egiten duzunean, edozein momentuan izan dezakezu arazoren bat. Horregatik, zu bezalako beste pertsona bat gertu egon daitekeela jakitea lagungarria da oso. Hau horrela, lehen esperientzia barregarri horretatik abiatuta, hurrengo urteetan euskara ikasteari ekin zion, mugaz gaindiko harreman hori bultzatzeko asmoz. Beraz, eta haren esanetan, euskararen ezagutza funtsezkoa izan zen harentzat. Ez bakarrik Zuberotarrekin harreman sendoak mantentzeko, Aezkoan zein Baztanen harreman sare berri bat sortzeko ere erabilgarria izan zaiola kontatu digu. Bere ustetan, egoera administratibo ezberdinen gaineko batasun kultural eta soziologikoa da euskal hizkuntza, hots, benetako komunitatea osatzen duena.

Bat dator beraz, Eugenia Fragak (2015, p. 180) azaltzen duenarekin: «La comunidad, por consiguiente, es ese territorio del lenguaje, ese espacio del discurso que constituye toda la vida social».

Harreman horiek nolakoak diren aztertu nahi ditugula eta, Larraineko herrian egiten ohi den mugen festara gonbidatzen gaitu.

Urte luzez ospatutako festa honetan, Uztarrozeko zein Larraineko biztanleak elkar-tzen dira. Urte batean Larrainen eta hurrengoan Uztarrozen. Mugen inguruko festak tradizio luzeko kontua da Erronkaribarren eta horren adibide garbiena Izabak Anso eta Eretarekin batera ospatzen duen Hiru Behien Zerga litzateke. Uztarroze eta Larraineko mugen festa beraz, eskualde honetan egiten diren antzinako festen barruan sailka genezake. Mendeak irauñ dituzte, Pablo Ordunak ongi azaltzen duen bezala:

Muchos de ellos han pervivido en el tiempo con pocas o escasas variaciones a pesar de estar en ocasiones alejados de la ortodoxia religiosa. En palabras de Durkheim (1982, p. 230): «Todo nos conduce, pues, hacia la misma idea: los ritos son, ante todo, los medios por los que el grupo social se reafirma periódicamente... Hombres que se sienten unidos, en parte por lazos de sangre, pero aún más por una comunidad de intereses y tradiciones, se reúnen y adquieren conciencia de su unidad moral». En definitiva, los roncaleses no solo celebraban lo extraordinario sino también lo cotidiano. Festejaban aquello que consolidaba y aseguraba en su subconsciente su propia idiosincrasia e identidad diferenciada (Orduna, 2016, p. 58).

Mugen festa honetara gerturatzen diren gehienak, abeltzaintzari lotutako pertsonak dira. Hala ere, badira ere bestelako herritarrak, hala nola, tabernaria edota beste ogibideak dituzten herritarrak. Urtero egin ohi duten moduan, mahaiak eta eserlekuak prestatu eta bazkaria prestatzeari ekiten diote.

Testuinguru honetan, mahai luzearen erdialdean eserita, hurrengo subjektuak elkar-rrizketatuko ditugu. Ezkerraldean, 3. subjektua dugu: artzaina eta gaztagilea, 45 urte inguruko gizona. Aurrean, 4. subjektua: 60 urteko emakumea, udaletxeko ordezkaria

dena eta senarra abeltzaina duena. Haren eskuinaldean, 5. subjektua: 70 bat urte, erretiratutako artzaina.

Elkarrizketa irekiaren ezaugarriak baliatuz, galderak guztiei egiten dizkiegu. Euskara da elkarrizketa aurrera eramateko baliatzen dugun hizkuntza. Haien ustetan, harremanak sortu eta mantentzeko, bizimodu amankomunak oso garrantzitsuak dira baina, euskararik gabe, harreman horiek desberdinak izango zirela diote.

Harreman horien adibide batez galde-tuta, 3. subjektuak dio, bere aita Otsagabiara joaten zela gazta eta espartinak saltzera eta sarritan gaztak hartzen zituela trukean. Otxoa abizena zuen herritar batekin euskaraz mintzo ziren etxean. Inoiz ez kalean. Debekatuta zegoela azaldu zion eta egiten zizkion bisitak, normalean isilpekoak ziren. Gauez iritsi eta goizean goiz alde egiten zuen. Gizon honek azaltzen digu bere etxearen eta Otsagabiakoaren artean harreman berezia zegoela. Normalean, harremanak etheen artekoak ziren. Etxearen kontzeptua pisu handikoa izan da beti Pirinioetan. Gaur egun ere biztanle gehienak abizenaz baino etxeagatik ezagunak dira herrietan. Ondare ez-material hau, gaur egun arte iritsi den kontzeptu kulturala da, Josetxu Martínez Montoyak horrela azaltzen du:

A través de estos ejemplos pirenaicos vemos cómo la cultura que sus habitantes han generado, a diversos niveles de manifestación social, incluyendo la dimensión más elevada de la identidad (el nacionalismo) toma como centro de cognición, organización y simbolización la unidad más pequeña de organización social del medio rural montaños, el caserío (Martínez-Montoya, 1998, p. 173).

5. subjektuak kontatu digu haren aitonak kontrabandoan ibilitakoa zela. Mugak sortutako harreman mota desberdin bat. Uda garaian ibili ohi zen kontrabandoan. Bere aburuz, mugak duen baldintza gogorrena ez da territoriala ezta administratiboa ere. Klimatologia da herritar honek azpimarratzen duen benetako harresi bakarra. Gogoratzen du sekulako elurteak zeudela lehen. Gaur egun ere, errepidea udan besterik ez dute irekitzen beraz, isolatuta geratzen dira beste aldekoekin neguan inolako harremanak mantentzeko.

4. subjektuaren iritziz, nahiz eta bere familian kontrabandoarekin lotutako istorioak ezagutu, benetako harremanak sortzen laguntzen zituzten jarduerak artzaintza eta



3. irudia. Uztarrozekoak Larrainekoekin bazkaltzen, Larrainen.

abeltzaintza ziren eta dira. Ezagutu ditu basolanetan elkarrekin aritzen ziren bi isurialdeko etxe ezberdinen arteko harremanak ere. Aipatzen duenez, erosketak egitera sarritan joan ohi ziren eta alkohola mugaren beste aldera ekarriz, diru apur bat ateratzen zuten.

Elkarrizketatutako guztiek onartzen dute 1940-1980eko hamarkadetan zehar harreman hori biziki gutxitu zela. Guda garaiaz ez dute hitz egiteko gogo handirik baina, kontatu digute herrian, guztiei aditu izan dietela beste aldeko pertsonak ihesean gurtzatu egin zutela muga. Honi buruz asko idatzi da ere. Juan Karlos Lopez-Mugartzak (2008, p. 39) jakinarazten duenez: «Barbe-Labarthe señaló asimismo que la mitad de la población de la capital souletina es descendiente de las ainarak, y que tal es así que durante la Guerra Civil fueron muchos los familiares de golondrinas afincadas en Zuberoa que se refugiaron en sus casas».

3. subjektuak gehitu nahi izan du gogoratzen duen pasarte bat. Haren hitzetan, 1950eko hamarkadan, Otsagabiako kuartelekoak, lainoa zela eta, galdu egin ziren eta herrian agertu ziren. Aterpe eman behar izan zieten. Ez du gogoratzen armada ala guardia zibilak ote ziren. Hala ere, argi dauka euskaldunak ez zirela.

Hurrengo elkarrizketa 2. subjektua eta 6. subjektuarekin mintzatu gara, oroit dezagun bigarrena, Uztarrozekoa dela (hegoaldea) eta 6. berriz, Larrainekoa (iparraldea), 30 urteko gizona, artzainaren semea eta artzaina hura ere.

Uztarrozekoak gogoratu digu artzain honen aitak ez ziola frantsesa ulertu eta algaraka ibili gara. Bion artean elkarrekin izandako bizipenak kontatzen diote elkarri eta haien abereei buruzkoak gehien bat. Ederra da ikustea nola aberasten diren elkarri aholkuak emanez laguntza eskaintzen diren bitartean.



4. irudia. Herri desberdinetako artzainak, solasean.

Haien ustez, hori baita benetako harremana. Lagun leial moduan jokatzea. Argazkian ikusten den bezala, eskuinteko gizonak (Uztarroze), ezkerrekoari (Larraine), behiak erditerakoan erabiltzen duen teknika bati buruz mintzaten ari zaio eta bere kideari laguntzeko prest agertzen da. Batzuetan euskara batua, frantsesa, gaztelera eta zuberotarra haien solasean nahasten direlarik.

Euskararen garrantziari buruz galdetuta, biek bat datoz esandakoarekin. Berebiziko garrantzia ematen diote mugaz gaindiko harremanetarako baina, 6. subjektuak bere ikuspuntu hunkigarria azaldu digu. Bere ustez, harremanak ez

dira bakarrik euskara hitz egiten dutelako jaiotzen baizik eta jokabide, balore eta printzipio batzuk jarraitzen dituztelako. Bai alde batean eta bai bestean. Kasualitatez, 1. subjektua ezagutzen du (Izaban elkarrizketatutakoa). Gizon hau ez zuen euskara ikasteko aukerarik izan eta hark biziki errespetatzen du. Berak dio euskara ez jakinda ere, harentzat, euskal artzainaren izaera zintzoa eta leialaren irudi bizia dela eta euskara dakiten ezagun asko baino gehiago maitatzen duela lagun hori. Gidoian galdera hauze ez dugun arren, galdetu nahi izan diogu ea zeintzuk diren harentzat balore horiek. Erantzun motz eta sendo baten bitartez adierazi digu esaera zahar bat. «Hitz hitz». Esandakoa betetzen duen gizona dela. Serioa. Benetakoa. Azaldu digu, gaur egungo gizarte moderno eta kosmopolitan, balore horiek hilik daudela. Bere aitak beti zion hitza betetzen ez duen gizona txakurraren mailakoa dela. Hau da, ez dela gizona. Aldiz, badira euskal hizkuntza galdu zituztenak baina ez euskal izaera. Pertsona honek argi dauka lurrarekiko lotura eta artzain bizimoduak errotzen dituela norberaren barruan balore horiek. Ideia erromantikoa dirudi baina, bihotzarekin hitz egin digula sumatzen dugu.

Larraineko azken elkarrizketatuek Santa Graziko familia bati bisita bat egitea gomendatu digute.

Herrira iristean, Kakuetakoko ur-jauzirako bidean, etxe batean gelditu gara. Hango jabeekin mintzatu gara eta elkarrizketa aurrera eramatea pentsatu dugu. Honako hau da 7. subjektuaren profila; emakumea, 60 urtekoa eta tabernaria.

Hasieratik interesatuta agertu da gure proiektuarekin eta komentatu digu, Santa Grazi eta Izabaren arteko egungo harremanak ia hilik daudela. Pertsona honek dio, 1940ko hamarkada arte, harremanak gertukoak zirela Izabako herriarekin. Oroitzen du, amak esan ziola, alde batekoek zein bestekoek ezkontzak ospatzen zituztela ere. Lehen esan dugun bezala, familiarterko harremanak zeuden eta basolanetan aritzen ziren elkarrekin ere. Ardoa eta alkohola erosi edota trukatu egiten zuten beste produktu batzuegatik. Bere belaunaldikoek hasi ziren Izabako erdaldunak lehen aldiz ezagutzen eta dirudienez, ez zuten haiekin inolako loturarik mantendu nahi izan. Frantsesak bezala hartuak ziren Izaban garai horretarako. Horrek mindu egin zituen bere gurasoak bezalako Santa Graziko herritarrak. Handik aurrera, harreman zahar horiek gutxi-naka-gutxinaka itzaltzen joan zirela dio.



5. irudia. Kakuetakoko etxea.



6. irudia. Santa Grazin, elkarrizketan.

Dirudienez, 1980-1990eko hamarkadarako, harremanak hiltzorian zeuden. Bere alabaren koadrilakoek adibidez, ez dira jadanik Izabako jaietara jaisten eta Frantzia barnealdeko hiri gune handiagotara joaten ohi dira. 7. subjektuak azaltzen duenez, erabat berria da egoera hori. Ez du lehenago horrelako mugimendurik ezagutu. Aldaketa honen eraginez, gera zitezkeen harreman urriak bukatutzat eman zituzten. Emakumeak tristura azaltzen du hori kontatzerakoan. Gaur egun, Izabako landetxe batek bezeroak bidaltzen dizkiola eta, harremana berreskuratu du. Landetxearen jabea euskalduna dela dio eta Santa Grazira egindako bisita batean kasualitatez ezagutu zirela azaldu digu. Dena den, haren aburuz, hori da betidanik bi herriek mantendu duten harreman historikoaren azken adibidea. Atsekabetsu baina itxaropentsu. Hala ikusten du bere burua elkarrizketatutako emakumea.

Hala ere, duela 20 urte, egoera kaxkarragoa zela ohartarazi digu. Izabako landetxearekin duten harremana bi herriak berriro batzeko erabili nahi duela azaldu dugu.

4. ONDORIOAK

Landa-lan honen ostean, eta batez ere elkarrizketatutako pertsona ezberdinak kontatu eta emandako informazioa aztertzerakoan, badira ideia batzuk nahiko garbi ikus daitezkeenak.

Lehenik eta behin, subjektu guztiek onartu dute betidanik ezagutu izan dituztela mugaren beste aldearekin herritar desberdinak eta haiek ere izan dituzten harreman familiarak, ekonomikoak, kulturalak edota lan harremanak ere.

Bigarrenik, eta gorago irakurri daitekeen bezala, gehienak bat datoz euskararen garrantziaz mintzo garenean. Harreman eta elkarlan horien hizkuntza horretan egiten ziren eta egiten dira gaur egun ere. Halaber, aipatzekoa da izaera eta inguruak asko baldintzatzen dituela haien arteko erlazio hori. Horretxegatik, Larraine eta Uztarrozen mantentzen diren sareak sendoagoak dira Izaba eta Santa Grazikoekin alderatuta. Azken finean, Uztarroze eta Larraineko errealitate ekonomiko eta demografikoak oso antzekoak dira. Lehen sektoreak Izaban baino garrantzi handiagoa dauka eta bortuko mugimendua desberdina da. Bortuan, bestearekin aurkitzeko aukerak ugariagoak dira beraz, harremanetarako inguru aproposa da. Bi herrien bizi estiloa antzekoa dela ikus

daiteke eta bortuan lan egiten duten pertsonak elkarri laguntza ematera ohituta daude. Ez da hitzartutako zerbait, ez dute horren beharrik. Erabat naturala da artzain batek beste baten ardiak galduta ikusten baditu, bestearen eremura eramatea eta alderantziz. Bada sinbiosi moduko bat.

Bestalde, Izaba eta Santa Graziko errealitate ekonomikoak zein demografikoak desberdinak dira. Izaban turismoaren sektoreak aurrea hartu dio lehen sektoreari eta hori Santa Grazin ez da gertatu. Honekin batera, Izaban euskara galtzeak, modu naturalean sortu zitezkeen harremanen bukaera ekarri zuen. Honekin ez dugu esan nahi faktore hau izan zela harremanen hausturan eragina izan zuen bakarra baina, elkarrizketatutako pertsonak aipatu diguten bezala, muga ez da inoiz erreala izan haientzat. Harresi sozial moduan eraikia izan zen alde batek, kasu honetan Nafarroak, garai zehatz batean elkarrekin ulertzeko erabili zuten hizkuntza galdu zuenean. Nahiz eta Espainiako Guda Zibilaren ostean etorritako urteak gainbehera honen mugarrria izan, badirudi, familia gutxi batzuk beranduago galdu zutela hizkuntza honen ezagutza. Hala eta guztiz ere, euskararen berreskurapenarekin batera, Izaba eta Santa Graziren artean hilak zeuden harremanak berreskuratzen hasiak izan dira.

5. PERSPEKTIBA

Landa-lana bukatuta, ikerketa perspektiba berri bat ireki da guretzat. Santa Grazi eta Izabako herritar batzuk borondate zuzena aurkeztu baitute haien harremanak berreskuratzeko asmoz. Gaur egun, aipatzekoa da, Belaguako Angel Oloron aterpea zaharberritzen hasia dela kontuan izanda, harreman instituzionala sendotzeko bidea irekia izan dela. Dena den, Santa Graziko elkarrizketatuak, Izabako landetxeko jabearekin kontaktuan da herri bazkariak eta elkartzeko datak antolatzen hasteko. Interesgarria suertatu zaigu haren iritzia jasotzea, hark ez baitu elkarlan instituzionalean sinisten, herrietako biztanleek elkar ezagutzen eta solasean sortu ditzaketan adiskidetasunean baizik. Badirudi, Uztarroze eta Larrainen mantendu diren erlazio naturalak josi nahi dituztela berriro ere Santa Grazi eta Izabako lagun hauek. Bide batez, Izabako herrian eman den euskararen berreskurapenaren hastapenari esker, sortu daitezkeen harreman berriak ikertzeko aukera izanen dugu, agian, etorkizun hurbilean.

6. ERREFERENTZIAK

- Fraga, E. (2015). Walter Mignolo. La comunidad entre el lenguaje y el territorio. *Revista Colombiana de Sociología*, 167-182. DOI: <https://doi.org/10.15446/rsc.v38n2.54887>
- López-Mugartza, J. (2008). Las relaciones históricas entre los valles de Ansó (Aragón) y Roncal (Navarra) y su reflejo en la lengua y en la toponimia. *Alazet. Revista de Filología*, 20, 33-120.
- Martínez-Montoya, J. (1998). La lógica doméstica y la lógica comunitaria en la sociedad tradicional pirenaica. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 17, 155-180.

- Orduna, P. (2016). Phenomenology of border landscape in the Basque Pyrenees and the Riverbanks of Douro: common identity or cultural relationship? *Folklore*, 408, 15-38.
- Ott, S. (1981). *The circle of mountains. A basque shepherding community*. Oxford: Clarendon Press.
- Palacín Mariscal, I. (2017). Ikastolen Elkartea, Example of effective transfrontier cooperation under the European Language Charter. *Oñati Socio-legal Series*, 7(6), 1343-1370.
- Rodríguez Sala-Gómezgil, M.^a L. (1983). El lenguaje como elemento cultural de identidad social en la zona fronteriza del norte de México. *Estudios Fronterizos*, 2, 153-164. DOI: <https://doi.org/10.21670/ref.1983.02.a06>